

BERTOLT BRECHT'EN KANTAK
ETA POEMAK

Otsalar'ek euskeratuak

1) SAN SEKULAEREZEN KANTA

Seaska pobrean sortu ziran guztiak,
pobrea jarri behar dala dakite,
egun on batean, urrezko alkian:
egun ori San Sekulaerezen eguna da!

San Sekulaerezen egun ortan
urrezko alkian jarriko dala.

Borondateak bere presioa izango du egun ortan,
gaiztakeria lepoa kostatuko da,
eta meritu eta irabaziak, egun ortan,
ogiaz eta gatzez trukatu dira.

San Sekulaerezen egun ortan
ogia et gatza trukatu dira.

Zeruan belarrak aziko dira,
harriak erreka gain,
eta gizona ona izango da. Mundua
paradisua izango da gehiago sufritzeke.

San Sekulaerezen egun ortan
mundua paradisu izango da.

Egun ortan ni abiadorea izango naiz,
zu egun ortan jenerala izango zera,
lanik gabeko langilleak zeregina izango du,
emakume pobrea deskantzatuko da.

San Sekulaerezen egun ortan
emakume pobrea, zu deskantzatuko zera.

Baina luzea da gure itxarotea.
Beraz, guzti au izango da
ez bihar goizean goiz, baizik
oillarra kantuan asi baino lehen.

San Sekulaerezen egun ortan
oillarra kantuan asi baino lehen.

(Der gute Mensch von Sezuan-etik)

2) GEREZA LAPURRA

Bein batean, goizean-goiz, oillarraren lehen kanta
baino lehenago,
txistu otsak iratzaririk, leheoratu nintzan.
Gereze arbolara igota —egunsentiz beterik egoan
gure baratzean—
galtzak arabakiñez jositako gaztetxo bat gainean
eserita
gure gerezak alaiki artuaz. Ikustean
buruakin agurtu ninduan, esku biekin
arbola adarretik gerezak patrikaratzen zituan artean.
Luzaroan, berriz etxe barruratu ondorean,
bere txistu alaiaren doinua entzuetan jarraitu nuan.

3) EGUNKARIAK IRAKURTEA TE BERO- TZEN DAN ARTEAN

Periodikuetan asmu andiak, goizean goiz irakur-
tzean
Aita Santu eta erregeenak, bankeru eta petroleuaren
erregeenak.
Beste begiarekin te urarekin
dagoan eltzeari so natzaizu,
zelan zikintzen dan, irakiten ari dala eta gero
garbitu,
eltzetik gainezka egin arte, eta, sua itzali.